



Udako jaiek ez dute etenik

Hamaika jardueraz gozatu dute haurrek eta helduek Karmengo Amaren egunean / 8-9

TXINTXARRI

Eguneroko ezinegonak

Aintzane Usandizaga idazlearekin bere azken lanei buruz hitz egin du TXINTXARRI-K / 6-7

Bost urteren ostean, Parapetasonik musika jaialdiko rock eta metal doinuak bueltan dira Lasarte-Orian / 5

Javi Olazagoitia eta Ibon Agirre herritarrek Goierriko Bi Handiak lasterketako kronika egin dute / 10



Iritsi da udara! Jan etxetik kanpo



- Janaria eta edaria hotz edo bero mantentzeko
- Aukera zabala



Eta etxean...
ez egon bero!



600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

Zutikako, sabaileko eta mahaiko haizagailuak

'Hizkuntza' lanak irabazi du mural lehiaketa

Juncal Agirre donostiarrak irabazi du *Guztion Lasarte-Oria* programako lehen saria udal euskaltegian egindako lanarengatik. Julian Tokero lasarteoriatarrek bigarrena eta hirugarrena eskuratu ditu, puntu bakarreko eta hiruko aldearekin, hurrenez hurren

Txintxarri

Horma zurian ageri diren oinak. Hala irudikatu du *Hizkuntza* Juncal Agirre donostiarrak *Guztion Lasarte-Oria 2019* programarako egin duen muralean. Udal euskaltegiaren sarrera apainduko duen lanak 90 puntu lortu ditu eta 1.500 euroko lehen saria jaso du egileak. Oso gertu geratu da birritan Julian Tokero lasarteoriatarra. Bigarren saria jaso du Blas de Lezo 6 kaleko *Sorgin dantza* irudiagatik, 89 puntu; eta hirugarrena, Zumaburu eskolako jolastokia alaitzen duen *Koloretako ametsa* lanagatik, 87 puntu.

Haietatik urrun, Agirrek Iñigo de Loiola 5 kalean sortutako *Frame*-k jaso du laugarren saria, 72 puntu; Pablo Astrain getxoztarrak Michelingo zelairean sarreran margotutako *Jolastu*-k baino hamar puntu gehiago lortuta. Bosgarren izan bada ere, gazteak badu zer ospatu, udalak eskatu baitio aurrez Kale Nagusian egina duen marrazkia zabaltzeko.

Lehenengo hiruen arteko aldeak agerian uzten du Jesus Zaballos alkateak asteazkeneko sari banaketan nabarmendutakoa: erabakia "lehiatua eta zailenetakoa" izan da, eta



Juncal Agirrek eskuratu ditu lehen saria eta laugarrena. TXINTXARRI

gauzatutako irudien maila goraipatu zuen, "denak kalitate handikoak dira, oso eskertuta eta pozik gaude".

Ildo beretik mintzatu zen Julia Otxoa epaimahaikidea. Idazleak proposamenen "originaltasuna, kalitate estetiko eta tekniko, kolorea eta kontzeptua" azpimarratu zituen. Gune batzuk beste batzuk baino "zailagoak" zirela aitortu zuen, denek nolabaiteko erronkei aurre egin behar izan dietela. Horrez gain, udala zoriondu zuen egiten duen pedagogiatatik. "Paradoxikoki, errespetatu egiten dira, inork ez die zirriborro edo grafitirik

egiten. Oilo ipurdia jartzen dizu, ez da artelan askorekin gertatzen".

Otxoarekin batera, erabakia hartzeko ardura izan dute programaren kudeatzaile Nagore Goñik, Aterpeko Jenni Garciak, Ricardo Ugarte eskultoreak eta Fernando Golvano irakasle nahiz arte kritikariak.

Herriko zenbait txokotan egindako horma irudiek "atari zabaleko museo bat" osatzen dute. Jada, datorren urtean zein tokitan esku hartu pentsatzen ari dira udal arduradunak eta parte hartzera gonbidatu zituen Zaballosek hiru saridunak.



TXINTXARRI

Mendi kirolen ilustrazioak, Jalgin

Karmelo Oñate marrazkilarik eskoriatzarrak egindako mendiko irudiak ikusgai daude Jalgi Kafe Antzokian. Eskia, alpinismoa, eskalada... zalea da eta kirol horietako uneak irudikatzen ditu komikiaren ukituak duten ilustrazioetan. Hilaren 31 arte egongo dira tabernako hormetan zintzilik eta salgai.



TXINTXARRI

Apalatxe taldea, Tximistarretan


Larunbatean hasi zen uztaileko eta irailako larunbatak musikaz beteko dituen Kultur Kale Zikloa. Apalatxe taldeak eman zuen kontzertua Tximistarreta parkean, ohiko goxotasuna eta kontzientziak mugitzeko hitzak eskainita. Bihar, beriz, Filipe Court Duo ariko da Andapa kalean, 20:00etan.



TXINTXARRI

Ahal Duguren galdeketa

Ahal Dugu-Podemos alderdiak bere oinarri galdeketa egin die aste honetan Espainiako gobernua eratzeko PSOREkin egiten ari diren elkarrizketen inguruan. Atzo bukatu zen boza emateko epea. Lasarte-Oriako Ahal Duguren zirkuluan izena emanda dauden pertsona guztiak parte hartzera deitu zituzten alderdiko kideek herrian hainbat afixa jarrita.



TXINTXARRI

Entsegu lokalak taldeen eskura

Udalak Gaztelekuko bi entsegu lokalak jarri ditu herriko musika taldeen eskura. Interesa dutenek hilaren 24a arte egin dezakete eskaera udaletxeko erregistrora idatzi bat eramanda. Bertan adierazi behar dituzte kideen datuak eta entsegua zein egun nahiz orduetan egin nahi dituzten.

Gipuzkoako txapelaren lehia urrian hasiko dute

Unai Muñoa, Ane Labaka eta Asier Azpiroz bertsolariak parte hartuko dute Gipuzkoako Bertso Txapelketan. Irailaren 14an ekingo diete final zortzirenei; urriaren 5ean Manuel Lekuona kultur etxean egingo dute horietako azkena

Txintxarri

Gipuzkoako Bertso Txapelketa udako oporren bueltan itzuliko da. Irailaren 14an Oñatin egingo dute lehen saioa eta abenduaren 14an amaituko dute Donostian. Hiru hilabeteko epean, hamasei saio jokatu dituzte, zazpi final zortziren, bost final laurden, hiru finalaurreko, eta finala. Gipuzkoako 48 bertsolariak parte hartuko dute, gehienek, 34k, maiatzean jokatuak Gipuzkoako Bertsoan sailkapen fasean lortu dute txartela, tartean, Ane Labaka eta Unai Muñoa lasarteoritarrek, hala nola, herriko bertso eskolan aritutako Asier Azpirozek eta Unai Gaztelumendik.

Azpirozek irailaren 21ean Ordizian jokatu duten final zortzirenean parte hartuko du Beñat Lizaso, Manex Mujika, Aitor Urbieta, Ane Zuazubiskar eta Ainhoa Agirreazaldegirekin batera. Saio horretan bertsolariak lanak jartzeko ardura, berriz, Maddi Labaka herritarrek izango du. Txapelketan parte hartzen hurrengo izango da Muñoa. Biharamunean, Zumaian igoko da oholza gainera. Bertsoan lagun eta lehiakide Gorka Maiz, Beñat Jauregi, Jokin Bergara, Ander Lizarralde eta Iñigo Gorostarazu. Saioko emakume



Oholza gainean onena ematen ahaleginduko dira bertsolariak. TXINTXARRI

bakarra Saroi Jauregi gai jartzailea izango da. Astebete geroago, Ane Labakaren txanda izango da. Elgoibarren ariko da Jokin Uranga, Endika Igartzabal, Eñaut Martikorena, Iñaki Gurrutxaga eta Unai Gaztelumendirekin batera. Ane Ezenarro proposatutako gaiei asmatu beharko dizkie errimak.

Azken final zortzirena, herrian

Herritarrik bertan izango ez bada ere, lehen faseko azken kanporaketa Manuel Lekuona kultur etxean egingo dute. Bertan, nor baino nor ariko

dira Aitor Salegi, Mikel Artola, Iñaki Zelaia, Unai Izagirre, Eneko Araiztegi eta Oier Aizpurua, Imanol Artola gai jartzailearekin batera.

Final laurdenetara sailkatuz gero, Azpirozek Irungo saioan parte hartuko du urriaren 20an, Muñoak, berriz, Eibarren urriaren 26an, eta Labakak Azkoitian, azaroaren 2an.

Saiotarako sarrerak irailaren 2an jarriko dituzte salgai www.bertsosarrerak.eus webgunean. Era berean, aukera ere izango da saio bakoitzaren egunean aretoko txarteldegian erostekoa.



GORKA LASA

Zergatik ez?

Azken egunotako eguraldia ikusita, bistan da udaran gaudela, eta askok egiten dugun lotura da, uda, eguraldi ona eta oporrak. Uztailan gaudela jakinik, gainera, zeinek uka oporren urtaroen sartuta gaudela bete-betean.

Udarekin batera herri askotako festak hasten dira; gurean ere izan genituen, sanpedroak!! Eguraldia lagun, jai-giro polita izan genuela uste dut, alai, koloretsua eta anitza.

Uda aurrera doan heinean, jendeak oporrak hartzen ditu; hain desiragarri ditugun oporrak! Baina nahiz eta hauen zain irrikaz eta gosez eman urte osoa lanean, konturatzerako xahutzen ditugu!

Oporrak ezinbesteko atsedenaldia dira, kirolariak beraien errendimendua hobetzeko entrenamenduei gehitzen dieten atseden egunak bezalaxe, guk ere fisikoki eta psikikoki pausaldi edo geldialdi bat behar dugu. Eguneroko zereginetatik mentalki ateratzea komenigarria izaten da, errutina hautsi eta burua beste zerbaitetara bideratu osasungarria den ariketa bat lez. Oporretan egotea ez da ezer ez egitea, edo ez nekatzea, edo hankaz gora egotea (edo hori ere bai), baizik eta hori guztia baino garrantzitsuagoa: eguneroko eskenatokitik alde egitea, ahal bada behintzat, betiko ordutegiak, ohiturak, lanak, ibilbideak etab. aldatzea.

Pertsona bakoitzak, norberaren gustuak eta ohiturak kontuan izanik, bere hautua egiten du. Batzuek hondartzarako bidea hartzen dute, beste batzuek, berriz, mendirakoa. Lagun-arte, familian edo bakarrik, sentsazio berrien bila edo garai bateko usain, zapora edo paisaiak berreskuratzera, milaka aukera.

Oporrak plazer bat badira, zergatik ez urte osoan zehar orekaz banatu, horrela ondo bizitzearen sentsazioa luzatuz (bizitza kalitatea hobetuz), eta ez hilabete bakarrera mugatu? Oporraldi on denei.

Espainiako gobernuko delegatuordea Lasarte-Oria izan da

Espainiako Gobernuko Gipuzkoako delegatuordea Gilermo Echenique Lasarte-Oria izan zen joan den astean. Jesus Zaballos alkatearekin elkartu zen lehenengoz eta udalerrriaren inguruan hitz egin zuten. Udalerrriaren egoera ezagutzeaz gain, Estatuko eskumenekin

zerikusia duten hainbat gai jorratu eta lankidetzaren eremuak aztertu zituzten. Zehazki, kultur ondareari lotutako % 1,5-eko inbertsioei buruz aritu ziren. Ondare Historikoaren Legearen arabera, obra publikoen kontratuetan, gutxienez, % 1,5 bideratu behar da Espainiako ondare kulturala zaintzera edota sormen artistikoa sustatzera. Lehentasuna dute obraren inguruak eta hurbilekoak.

TXINTXARRI PUBLIZITATEA:

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?

publizitatea@ttakun.eus
943 371 448 (106)
646 82 44 66



Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria

MAITE
ESTETIKA ARETOA

Aurpegiko eta gorputzeko azala

- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU

MAKINA BERRIA

Ehunen birsortzea eta giharren indarzea tratamendu bakarrean.

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

ISLANDIA (itsas bidaia)

NORVEGIAKO FIORDOAK (itsas bidaia)

ERRUSIA

ZETAREN BIDEA (Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK Denboraldi aurrerapena

ESLOVENIA & ISTRIA

NOAOA BIDAIAK
T.: 943 373 613
info@noaoa.eus
Hipodromo Etorb. 10,
Lasarte-Oria



Azken urtean Lasarte-Orian eta gure inguruan gertatutako errebaso umoretsua egingo dute parodian. TXINTXARRI

Santa Ana egunerako guztia prest

Santa Ana egunerako atzera kontua hasi da. Uztailaren 26an usadioari jarraipena emango zaio. Meza, dantza eta parodia izango dira, baita pala txapelketako finalak ere. Santa Ana Parodian Atsobakar erresidentziako langileak omenduko dituzte

Txintxarri

Santa Ana eta San Joakin eguna modu berezian ospatzen da Lasarte-Orian. Gerra ostean, herriko lagun talde batek herrian egiten zen antzezlan umoretsu eta kritikoa berreskuratu zuen

eta belaunaldiz belaunaldi gaur egunera arte iritsi da. Egun Ttakun Kultur Elkarteak hainbat elkarte eta herritarren laguntzarekin antolatzen du Santa Ana Parodia. Guztia martxan dago lasarteoriatarrei

urtean eragin dieten gertakarietara errebaso egin eta Lasarte-Oriako gaitzen erantzule diren bi malapartatuak epaitzeko. Parodia dugu egun horretako jarduera nagusia, baina ez da bakarra.

Ospakizun hauen aurrekari gisa, ohikoa den eskulagintza azoka izango da igande honetan.

Eta egun horretan bertan, Aterpea Merkatari eta Ostalari Elkarteak ere bere harritxoak jarriko du Santa Ana pintxo ibilbidearekin.

Bi ekitaldi hauen informazio gehiago behean ikusgai.

Karkaba

Santa Ana egunean bertan ere, hainbat ekimen egingo dira goizean.

Sainduaren ohorezko meza eskainiko da, 11:00etan, Erketz EDT dantza taldeko kideen parte hartzearekin.

Meza amaitu ostean, eliztarrek eta herritarrek luntzaz gozatu ahalgo dute Brigita plazan.

Eguerdian puntuan, erlojuak jotzearekin batera Erketz EDTko kideek Santa Ana Karkabaren aurrean agurra, fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dituzte.

Pala txapelketa

Arratsaldean, berriz, Santa Ana pala txapelketako finalak gozatu ahalgo dute zaletuek. Aurrez aurre Xenki Astiazaran-Jon Pagola eta Garikoitz Arteaga-Axular Iparragirre bikoteak izango dira. Ligaxkako azken partiduan izan dute indarrak neurtzeko aukera.

Gurutz Iturbe-Josu Arabaolaza eta Jon Mikel Arteaga-Ander Jauregi bikoteek hirugarren eta laugarren postua jokatu dute.

Finalen aurretik Mindara elkarteak kideek gurgildun ahulkiekin pala erakustaldia egingo dute.

Umorea eta kritika

Gaueko 22:30ean hasiko dute parodia. Aurretik azken entsegua egingo dute aktoreek Manuel Lekuona kultur etxean. Eta antzezteko behar dituzten indarrak hartzeko afari gozoa dastatuko dute Xirimiri elkarteak.

Herritarrei Okendo plazara hurbiltzeko gonbita egingo diete, 21:30ak aldera hasiko den kalejiran. Kale Nagusia eta erdialdeko kaleetatik barrena ibili ostean plazara iritsiko dira.

Fiskala, epailea, abokatua, Santa Ana eta San Joakin, Basajaun, Mikeleteak...eta beste hamaika pertsonaia igoko dira Okendoko oholtzara. Azken urteko gai garrantzitsuenetara errebaso egin eta akusatuek epaituko dituzte. Euren erruduntza onartzen bada, deabruak berak emango ditu infernura eta sutan erreko ditu.

Parodia hasi baino lehen, antolatzaileek omenaldi txiki bat egingo diete Atsobakar erresidentziako langileei.

Azken urteetan haien lan baldintzak hobetzeko egiten ari diren lana aintzat hartu nahi dute Santa Ana Parodiaren antolatzaileek. Era berean, denboran luzatu den borrokak darraielaga gogora ekarri nahi dute.

Eskulangintza azokan elkartasunarentzat tartea

Saskiak, pilotak, bitxiak, zapatak, jakiak... eskuz egindako milaka produktu izango dira igandean Lasarte-Orian egingo den 35. Santa Ana eskulangintza azokan.

Sendoki Batzorde kulturalak antolatzen duen azokak 50 bat postu izango ditu bi guneeetan banatuta: batetik, Okendo plaza, eta bestetik, Mercero gunea.

Zapatagintza, larrugintza, bitxigintza edo ehungintza produktuez beteko da Okendo plaza. Lasarte-Oriako artisauek ere izango dute beren txokoa. Lasarte-Oriako ehazkien taldea, Biyak Bateko eskulan taldea, zur-lanketa taldea eta Pako Altunaren maketak ikusi ahalgo dira.

Elkartasunarentzat ere tartea izango da. Erretinosi Pigmentarioaren Gipuzkoako Elkarteak eta Lasarte-



Ramon Ormazabal Sendokiko kidea eta udal ordezkariak aurkezpenean. TXINTXARRI

Oriako Emakumeen Zentro Zibikoak jarritako postuetan.

Honez gain, eskuak zikindu nahi dituenak izango du aukera. Otarregintza, marketeria eta udako albumak egiteko tailerrak izango baitira.

Azkenik, Merceron elikadurako 27 postu izango dira, produktu naturalekin. Gazta, hestebeteak, euskal pastela, kontserbak, errokillak, taloak, pateak edo ukenduak egongo dira salgai.



Aurten ere, Santa Ana Pintxo berezia dastatu ahalgo dute herritarrek. TXINTXARRI

Tabernetan ere, Santa Ana giroa

Aterpea Merkatari eta Ostalari Elkarteak aurten ere bat egingo du Santa Ana eguneko ospakizunekin. Uztailaren 21ean, igandean, Santa Ana pintxo berezia dastatu ahalgo da Lasarte-Oriako sei tabernetan: Eguzki taberna, Txartel kafetegia, Yolanda taberna, Arkupe taberna, Buenetxea kafetegia eta Primeran taberna. Taberna bakoitzak bakailaoa oinarri duen pintxo bana aurkeztuko du. Seigarren urtea da jarduera antolatzen dutena eta Aterpeko ordezkariak pozik agertu dira herritarren harrerarekin.



Parapetotik Andatza plazara lekualdatuko da aurten Parapetasonik jaialdia. Bosgarren edizioa izango da. TXINTXARRI

Bost urte eta gero, bueltan da Parapetasonik

Parapetasonik V rock eta metal jaialdia "inoizko bereziena" izatea lortzeko lanean ibili dira antolatzaileak. Egun osoko egitaraua prestatu dute: herri bazkaria, kalejira musikatua, bost kontzertu eta DJa. Parapetosa utzita, Andatza plazara lekualdatu dira

Iñigo Gonzalez Sarobe

Rock eta metal musika estiloen –eta azpiestilo guztien– zaleak zorioneko daude: bueltan da Parapetasonik jaialdia. Bost urteko etenaldiaren ostean, prest dute antolatzaileek bosgarren edizioa. Egun osoko egitaraua antolatu dute uztailearen 27rako, larunbata: herri bazkaria, kalejira musikatua, bost

kontzertu eta DJa, festa gaueko ordu txikieta arte luzatzeko.

2010eko irailean egin zuten aurrenekoz Parapetasonik. Azkenekoz, 2014ko irailean. Antolatzaile batzuek segitzeko asmorik ez zuten, etenaldia egitea erabaki zuten. Lantaldea berri, eta 2017ko udazkenean hasi ziren elkartzeko berriro, jaialdia "inoizko bereziena" izan

zedin lanean, Mikel Yarza herritarrak nabarmendu duenez. Bera da antolatzaileetako bat.

Parapetotik Andatza plazara

"Parapetosa da jaialdiaren sorleku eta espazio kuttun, baina indarra galdu du urteen poderioz eta abandonatuta dago gaur egun", dio Yarzak. Parapetasonik erdigunera ekartzea erabaki

dute. "Nahi dugu herritarrek festibala ezagutzea eta euren ere badela sentitzea". Gaur arratsaldean egingo dute aurkezpen ofiziala plazan bertan, udalarekin batera, 19:30ean.

Egun osoko egitaraua prestatu dute, baina musika emanaldiak izango dira jaialdiaren ardatz. Bost taldek osatzen dute kartela: Overloud, Rodeo, Legen Beltza, Lampr3ea eta Bellako. Azken horiek Bartzelonakoak dira. "Aurten lehenengoz, Euskal Herrikoa ez den talde batek parte hartuko du Parapetasoniken", azpimarratu du Yarzak.

Rock eta metal azpiestilo ugari hartu dituzte kontuan taldeei tartea egiterakoan: hard rock leuna, hardcore estiloa eta thrash zein death metal-aren muturreko soinuak. "Aniztasuna eta kalitatea" izan dira antolatzaileen irizpideak. "Musika mota horiek jorratzen dituzten kalitatezko talde asko ditugu Euskal Herrian".

Zital Sessions emanaldiak

Parapetasonik V prestatzen hasi zirenean, antolatzaileek argi zuten "berezitasun gehigarri bat" eskaini behar zirela zaleei. Bururatu zitzaizkien bost musika emanaldi eskaintzea, Gipuzkoako beste hainbeste udalerritan. *Zital Sessions* ekimena jaio zen orduan. Hamalau taldek eskaini dituzte kontzertuak urtariletik ekainera. "Batuetan beteta ikusi ditugu aretoak, eta ia hutsik beste batuetan. Hala ere, gustura gaude, musikariekin eta tokian tokiko antolatzaileekin estutu ditugulako harremanak". Pertsonaia berezi batzuk ere sortu zituzten saio horietarako: hontza, lemurra, astoa, behia eta txakurra. "*Zital Sessions*-ak bukatuta, teoriarik ez lukete gehiago azaldu behar, baina

nork daki, sorpresaren bat egon daiteke", aurreratu du Yarzak.

Berrikuntza gehiago dakartzatza Parapetasonikek. Esate baterako, kalejira musikatua. Festibala babesten duten tabernetan geratuko dira. "Harremana estutu nahi dugu ostariarekin". Euskal Herriko gainerako metal jaialdietako kideak ere etorriko dira: Bizkaiko Dimetal, Nafarroako Desolation eta Ipar Euskal Herriko Buru Beltz dira festibal horiek. Herri bazkaria ere egingo dute, Andatza. Hamabost euro balio dute txartelek.

Jaialdiaren egitaraua

- **14:30ean**, herri bazkaria egingo dute Andatza plazan. Txartelak salgai daude Avenida, Trumoi eta Furia Beltza tabernetan, 15 eurotan.
- **16:30ean**, kalejira musikatua, jaialdia babestu duten tabernetan geldialdiak eginda.
- **18:00etatik aurrera**, kontzertuak Andatza: Rodeo, Legen Beltza, Bellako, Overloud eta Lampr3ea.
- **00:30ean**, After Party DJ, parranda luzatzeko.

GAUR ARRATSALDEAN EGINGO DUTE AURKEZPEN PRENTSAURREKOA, ANDATZAN, 19:30EAN

Makulu Ken taldearen afrobeat musika, Ibizan eta Formenteran

'Euskal afrobeat' bira egingo du herriko musika taldeak datorren astean; hiru kontzertu eskainiko ditu bi irlatan

Txintxarri

Makulu Ken herriko taldeak Balearretako bi uhartetara eramango du afrobeat musika datorren astean. Hiru kontzertu eskainiko ditu Ibizan eta Formenteran, asteazketik

igandera. *Euskal afrobeat* izena du bira horrek. Uztailearen 24an, asteazkena, izango da aurreneko musika emanaldia. Santa Eulalian (Ibiza) joko dute, 20:00etan hasita. Chirincana izeneko kafetegian erakutsiko

dute euren musika. Bi egun geroago ere Ibizan ariko dira, San Antonio herriko Puchet hotelean, 20:30ean.

Azken kontzertua larunbatean izango da, hilak 27, Formenterako Sa Panxa jatetxean, 22:00etan.

Makulu Ken 2007. urtean sortu zen, eta emanaldi mordoa eskaini ditu ordutik. Urte hasieran aritu ziren azkenekoz Lasarte-Orian, Presoen Lagunak Elkartearen IX. Errezitaldian. Autoeditatutako bi lan kaleratu dituzte: *Makulu Ken* eta *Kale Kale*.



Makulu Ken, emanaldi betearekin, iazko sanpedroetan. TXINTXARRI



Aintzane Usandizaga idazleak lehen liburua kaleratzeko asmoa bete du. Hurrengo argitalpena, Asier Iturralde ilustratzailearekin batera egindako *Etxe honetan* album ilustratua izango da. TXINTXARRI

"Pozik nago lehena ipuin liburua izan delako"

AINTZANE USANDIZAGA IDAZLEA

Apirilean argitaratu du lehen ipuin sorta, *Kabitu ezina* izenburua jarri dio, zortzi istorioetan ageri den ezinegonari bezala. Giza harremanei buruz aritzeko gogotik sortu zaizkio

Maitane Aldanondo

Istorioko zalea da Aintzane Usandizaga (Lasarte-Oria, 1988), txikitatik. Urteekin hazten joan zaio ipuinekiko zaletasuna, eta irakurtzeaz gain, idazten ere hasi zen. Kultur kudeaketan dihardu nagusiki. Debutaz eta sorkuntzaz mintzatu da TXINTXARRI-rekin.

Nola sortu zen 'Kabitu ezina'?

Nire buruari proposatu nion saiatzea ipuin bilduma bat egiten. Igartza bekara aurkezteko. Jaso nuen gomendio bat izan zen lehenik izenburuan pentsatzea, asko kostatzen zait aukeratzea, garrantzia handia ematen diet.

Idatzitako ipuinetan eta martxan nituen ideietan sumatzen nuen behin eta berriro azaltzen zela ezinegon, urduritasuna, inguruan ez 'enkajatzeari', nork bere burua erabat ez ulertzea edo ez onartu nahi izatea... Kabitu ezina izena jarri nion sentsazio multzo horri. Behin behineko izenburua zen, baina betiko izan da, eta seguru asko eragin egin du ipuinetan ere. Ez zuen beka irabazi, baina Elkarreko editore Xabier Mendigurenek deitu zidan esanez proposamena asko gustatu zitzaizela eta bukatzen banuen, argitaratzeko prest zeudela.

Ezinegon batzuetan azalekoa da, beste batzuetan sakonekoa, baina irakurleak nabari du.

Pertsonaiak oso desberdinak dira, saiatu naiz bakoitzaren azalean sartu eta ezinegon adierazten, sentsazioetara joaten,

"HARREMANEZ HITZ EGITEKO GOGOAN NUEN, NIRE USTEZ, LITERATURA GIZA HARREMANEKIN MARRAZTEN DELAKO"

zentsumenek hitz egiten; horregatik narratzaileak subjektiboak dira. "Ez dut hemen egon nahi, alde egin nahiko nuke" sentsazioa da, baina ez dute prozesatu, eta bertan jarraitzen dute inertziagatik. Badago hortik asko. Batzuetan egoera nahiko inozoa da, itxuraz behintzat eta beste batzuetan sakonagoa.

Ez dakite zer sentitzen ari diren...

Ezerosotasunarekin pasatzen da: sentsazioa da zerk eragiten dizun jakitea baino lehenago. Batzuetan ez gara zerk sentiarazi digun aurkitzeko gai. Fisikotik doa. Gorputzean daukazu, eta gero lan bat egin behar duzu konturatzeko. Orokorrean, harritu edo ezeroso sentiarazten gaituenak zerbait jartzen digu martxan, eta merezi du sudurra pixka bat hurbiltzea zergatia

jakiteko. Gero erabakiko dugu gehiago murgildu edo ez.

Ipuin solteak dira, baina hainbat elementu dituzte komunean. Hautua izan da ala horrela suertatu da?

Baneukan harremanez hitz egiteko gogo handia, bereziki taldeetan ematen direnen inguruan; nire ustez, literatura giza harremanekin marrazten delako. Horretaz hitz egiteko gogoan nuen, behin eta berriro agertzen den gai bat da, ez da nahita egin dudana zerbait.

Espresuki erabaki gabe ere, animaliak oso presente daude.

Gerora pentsatu nuen, Pili Aguado ilustratzailearekin lanean hastean etengabe agertzen ziren... Batetik, espero dugu animaliek jokaera eta testuinguru zehatz bat izatea, hala ez denean antinaturalaren ezinegon

eragiten digute. Bestetik, familian umetatik animalien bitartez gauza asko ikasi ditugu, haiekin enpatizatzen lagundu digute. Bi gauzak izango dira!

Halaber, lan elkarrizketak bi ipuinen ardatza dira. Zergatik?

Frustrazio bat izango da [kar, kar]. Gai horri buelta asko emanda neuzkan. Beldurgarriki naturalizatzen ditugun gauza batzuk, zalantzan jarri gabe ere onartu. Lan elkarrizketak oso bortitzak dira. Gertatu zait ateratzea zerbait kendu didaten sentsazioarekin, konturatu gabe jarri nautela egon nahi ez nuen egoera batean. Ipuin bat ia karikatuzkoa da, bestea, etengabe errepikatzen den amesgaiztoa.

Zerk inspiratzen zaitu?

Ipuinaren araberakoa da. Nigan pisu handia dute irudiek eta egoeren bisualizazioak. Batzuetan baduzu buruan pertsonaia jakin bat, ezaugarri batzuk dituena, eta horri buruzko zerbait egin nahi duzu. Normalean, irudi, pertsona edo gauza zehatz horrek topo egiten du kuriositatea eragiten didan gairen batekin, eta hortik sortzen zaizkit ipuinak.

Zerk eragiten dizu kabitu ezina?

Gauza pila batek [kar kar]. Txiki bat esatekotan, ontzi garbigailutik ateratako edalontziak lakarrak daudenean. Baita sentitzen badut egoera batean gogoz kontra nagoela, kaiola batean dagoen animalia bezala sentitzen naiz.

Eta horietatik zenbat du liburua?

Bastante. Beste gauza batzuk kabitu ezinaren kuriositatetik.

Ekainean jaioterrian aurkeztu duzu liburua, Jalgin, eta lagunez inguratuta. Berezia izango zen, ezta?

Oso. Liburua zuk idazten duzu, baina hainbat lagunek entzuten dizkizute ideiak, aguantatzen

zaituzte dispertsu zaudenean, bost aldiz gauza bera errepikatzen dizutenean... Lagun horiekin egin ahal izatea aurkezpena eta Jalgin... Oso polita izan zen, oso gustura egon nintzen.

Gustura al zaude emaitzarekin?

Pozik nago lehena ipuin liburua izan delako, asko maite dudan generoa da, nahiz eta ez bakarra. Ilustrazioekin ere. Barruan jartzearena ez da oso ohikoa. Eskatu nuen, aukera eman zidaten, eta Piliarekin lan egitea gozatua izan da.

Zer du berezi ipuingintzak?

Ipuinak irekiagoak dira, interpretazio gehiagotara daramate. Askok gustatzen zait ipuin berak zenbat gauza eragin ditzakeen pertsona ezberdinengan. Elipsiaren jokoa, esaten ez duzunak esaten duzunak bezainbesteko garrantzia du; hori idazterakoan zaila da, baina jolasa ere bada, zer esan, noraino, zer ez... Oso muinera doa, azaltzen denak azaldu behar du. Ipuin liburu batek aukera ematen du askotariko munduak sortzeko, baita irakurtzerakoan ere.

Orainsu Asier Iturralderekin batera Etxepare Saria jaso berri duzu Etxe honetan album ilustratuarekin.

Asierrek eta biok elkar ezagutu genuen Bikoteka ikastaroan, Galtzagorri Elkarteak eta Iruñeko udalak antolatua euskarazko album ilustratuak sortzea

"PENTSA DEZAKEZU IGUAL INOIZ GEHIAGO EZ ZAIZULA EZER BURURATUKO, BAINA NIRE BIZITZA EZ DA HORI BAKARRIK"



Taxio Arrizabalagak egindako galderei erantzun zien Usandizagak ekaina erdialdean Jalgin egindako aurkezpenean. TXINTXARRI

sustatzeko. Ilustratzaile eta idazleak aurkez daitezke proiektu batekin edo bakarka eta bikotekidea jartzen zaituzte. Asierrek eta biok martxan jarri genuen proiektua gustatu zitzaigun, eta handik kanpo ere lanean jarraitu genuen. Oso pozik gaude sarituak izan garelako eta udazkenean Pamielak argitaratuko duelako.

Zer duzu esku artean?

Albumaren edizioarekin nabil buru-belarri. Buruan bueltaka edo koaderno bazterretan ideiak beti ditut, baina zerbaitek harrapatu eta idaztera esertzean ulertzen dut ari naizela zerbait idazten.

Bigarren liburua bertigorik eragiten al dizu?

Batzuetan bai, beste batzuetan ez. Liburu hau ateratzeko asko mentalizatu naiz. Askok hitz egin dut gai honetaz literatur munduan lehenago argitaratu

duten hainbat emakumerekin. Sorkuntza, plaza izaera eta emakume izaeraren inguruko hausnarketa feminismotik asko egiten ari da gaur egun. Horrek asko lagundu zidan. Iruditzen zait pixka bat bada ere, lan hori eginga dudala, erabakia hartu nuela hori pentsatuta. Bertigoa? Pentsa dezakezu igual inoiz gehiago ez zaizula ezer bururatuko, baina nire bizitza ez da hori bakarrik. Ez bada izango, ez da izango; eta bestela, ongi etorria izango da.

Kosta egiten al zaizue emakumeoi zuen burua idazle gisa aitortzea?

Egiletza plazaratzeari buruzko ikastaro batean egon nintzen eta mahainguru bateko lau hizlariak ziren idazle eta beste ofizio bat ere zutenak. Gizonek segituan esaten zuten idazle zirela, emakume bati kostatzen zitzaion eta besteak egiten zuen militantziazatik, jarrera politiko

bezala. Hor badago zerbait, Eider Rodriguezek eta Uxue Alberdik landu dute gai hori. Hain urrutira joan gabe, ikasketetan, iristen da adin bat non neskek isiltzen hasten garen, publikoan hitz egiteko zerbait "superbrillantea" esan behar dugu, bestela ez dugu ahorik irekiko. Gizonek ez daukate presio hori.

Idazteko zaletasuna beti izan duzu?

Umetatik. Eskolan asko animatzen gintuzten idaztera, marrazkiz lagundutako istorioak egitera. Lasarteko Literatur lehiaketan parte hartzen nuen, batzuetan irabazi... Hortik sortu zitzaidan zaletasuna. Istoria zalea izan naiz beti, ipuinak entzutea, antzerkia... Nahi gabe ere, zuk asmatzeko saiakera egiten duzu. Ipuinez gain, letraren bat idatzi dut lagunentzat, gidoi pixka bat... Nobelarik oraindik ez. Asmoa? Gogoia eta istorioa izanez gero, bai.

txintxarri.eus

irakurleen artean

Zozketa!

Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarren 'KABITU EZINA' liburua, sinatuta, zozketatuko dugu.

Eman izena www.txintxarri.eus webgunean, uztailaren 22a baino lehen.



Txintxarri Aldizkaria
@txintxarri.eus



elkar

Oriako Karmengo Amaren ohorez

Egun osoko egitaraua izan da

Ttiriki Ttarraka eskolako trikitilariak Oriako auzoa esnatu dute Karmengo Amaren egunean. Kapera inguruan haurrentzako tailerrak eta buruhandiak izan dira, txikien eta gazteen gozamenarako. Meza nagusia ere egin dute. Auzotarrez gain, udal ordezkariak izan dira honetan. Biyak Bat elkarteko abesbatzak girotu du meza eta Erketz EDTko kideek agurra dantzatu dute. Ostean, luntxa dastatu dute auzora hurbildu diren guztiek.

Goizeko ekintzen ostean, indarrak hartu eta arratsaldekoekin ekin diete. Sorgin Dantza izan da auzotar gehien bildu dituen ekitaldia. Gazteboenek ere primeran pasatu dute globo eta ur gerretan. Helduek, berriez, punteria ona dutela erakutsi dute toka txapelketan. Izerditu denik ere izan da, Saito gimnasioak antolatutako zunba erakustaldian.

Karmengo Amaren egunari agur esan diete oriatarrak, baina ez dira Lasarte-Oriako auzoetako jaiak amaitu. Hilabete amaieran, Basaundi bailarako San Inazio Jaiak ospatuko dira.



Ederki gozatu dute haur eta gazteboek ur gerran. Puxikak, pistolak eta kuboak iturrian bete eta ber...



Haurrentzako eskulan tailerretan giltzakoak, pultserak, kometak, ponpoiak... egin dituzte. TXINTXARRI



Gazte gehienek lasterka egin dute buruhandien aurrean. Aurre egin dienik ere izan da. TXINTXARRI



Oriako kapera bete dute auzotarrek meza entzuteko. Ostean, luntxa izan da. TXINTXARRI



Loari aurre egin diote. Ingurukoak ere busti dituzte. TXINTXARRI



Toka txapelketan hamabost bat herritarrek parte hartu dute. Punteria ona dutela erakutsi dute. TXINTXARRI



Animaliaz bete da Brunet lorategia aurpegia margotzeko tailerrari esker. TXINTXARRI



Oriako Sorgin Dantza ikusteko aukera ere izan da. TXINTXARRI



Zunba eta Kangoo erakustaldia egin dute Saito gimnasioko lagunek. Ikusle ugari izan dute. TXINTXARRI



Ibon Agirrek eta Javi Olazagoitiak Goierriko Bi Handiak ultra lasterketa egin dute, elkarrekin. IBON AGIRRE

Esperientzia eta ilusioa

Goierriko Bi Handiak ultra lasterketan parte hartu dute Lasarte-Oria Trail taldeko kide Javi Olazagoitiak eta Ibon Agirrek. Azkarrago helmugaratzea espero zuten biek, baina "pozik" daude, probaz disfrutatu dutelako eta Beasainera iristea lortu dutelako

Iñigo Gonzalez Sarobe

Javi Olazagoitia herritarraren ultra lasterketen curriculum ez da nolana hiko: Ultra Trail Mont Blanc bat, bi Ehunmilak eta lau Goierriko Bi Handiak. Azkena, pasa den asteburuan, ostiraletik larunbatera bitartean. Urtez urte eta mendiz mendi pilotutako esperientzia.

Ibon Agirre duela gutxi etorri da Lasarte-Oriara bizitzera, Donostiatik. Lasarte-Oria Trail elkartearen izena eman, eta, besteak beste, Olazagoitiarekin hasi zen entrenatzen. Aurreko bi urteetan saiatu zen Goierriko Bi Handiak proba burutzen, baina ez zuen lortu. 2017an, sabeleko arazo batzuegatik; iaz, antolatzaileek bertan behera utzi zutelako proba, ekaitz batengatik. Ezbeharrak ezbehar, ultra hori burutzeko ilusioa ez zaio itzali. Lortu du helburua, hirugarrenean.

Esperientzia eta ilusioa batera ateratu dira aurreko Goierriko Bi Handiak lasterketan. 88 kilometro luze, eta 6.000 metroko desnibel positibo metatua. "Ibon oso ona da distantzia laburreko probetan, gazteagoa da eta fisiko hobea du, baina esperientzia apur bat falta zaio ultretan. Proposatu nion elkarrekin irtetea, nire eskarmentua baliatuz", azaldu du Olazagoitiak.

Ostiral iluntzean ekin zioten probari, Beasainen. Lasterketaren lehen erdian, aparteko arazorik ez, Etzegaratera iritsi ziren arte. "Lizarrustitik Etzegaratera

**ELKARREKIN EGIN
DITUZTE 88
KILOMETROAK
OLAZAGOITIAK
ETA AGIRREK**

bitarteko ibilbidea oso lainotua zegoen, apenas ikusten genuen ezer", gogoratu du Agirrek. Erori egin zen Olazagoitia han, eta Beasaingo helmugara iritsi arte arazo muskular dezentek izan zituen. Agirrek dio disfrutu egin zuela Aizkorritik jaistean, orpoetan mina sentitzen zuelako. Ia elkarrekin helmugaratu ziren. 14.55.08ko denbora egin zuen Agirrek, eta 99. postua eskuratu. Bi segundora sartu zen Olazagoitia, 100. postuan.

Bi lasterkariek azkarrago helmugaratzea espero zuten. Argi hitz egiten du Olazagoitiak: "Egin dudana denborarekin atsekabetuta nago. Ordu asko sartu ditut entrenamenduetan, nire familiari eta lagunei kendu dizkiedan ordu asko. Hamalau ordutik jaitea espero nuen". Egun batzuk pasako ditu amorratuta, baina haserrealdiak

ez dio gehiegi iraungo. "Laster hasiko naiz pentsatzen datorren urtean zein lasterketa egin".

Agirrek ere espero zuen denbora hobea egitea, baina "oso pozik" dago egindako lanarekin. "Helburu nagusiak ziren Beasainera iristea eta ibilbideaz gozatzea, eta bete ditut!". Duela bospasei urte hasi zen mendian lasterka egiten. Proba motzak hasieran, eta luzeagoak gero. Maratoiaren distantzia -42,195 kilometro- gustatzen zaio gehien. "Azkar joan zaitezke, eta paisajeez gozatu aldi berean". Ultrek ez dute gehiegi erakartzen, baina "salbuespena" da Goierriko Bi Handiak: "Ordu pila pasatu ditut Txindokin eta Aizkorrin; irrikitan nengoen proba horretan parte hartzeko".

"Lasterketa ikaragarria da"

Distantzia luzeko mendi lasterketa ugari egin ditu Olazagoitiak. Bat aukeratzeko eskatuta, ez dauka inolako zalantzarik. "Ez dago Ehunmilak proba bezalakorik, ikaragarria da, UTMB Ultra Trail Mont Blanc baino hobea". Arrastaka mendi taldeak antolatzen du 168 kilometroko ultra hori, eta baita distantzia laburragoko Goierriko Bi Handiak eta Marimurumendi ere. "Profesionala izango bazina bezala tratatzen zaituzte: zer jan eta edan nahi duzun galdetzen dizute, makilak eusten dizkizute... Duela lau urte masaje bat eman zidan boluntario batek!".

Agirre txundituta geratu da Goierriko Bi Handiak egin bitartean ikusi dituen paisajeekin. "Aralarren gaua igarotzea, Aizkorritik egunsentia ikustea... Ahaztuko ez ditudan momentuak dira". Helmugara iritsi zenean familia zegoen beraren zain. "Ikaragarria da haien animoak eta berotasuna sentitzea". Olazagoitiak beste momentu bat gogoratu du: Txindoki mendian parte-hartzaileei txalapartarekin harrera egin zietenekoa. "Proba oso gogorra da, baina ederra".

Irailean beste ultra bat egitekoa zen Olazagoitia, baina atsedean hartzea erabaki du. Idiazabalgo Axari Trail egingo du taldekide batzuekin batera, eta Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia urrian. Agirrek bukatu ditu aurtengo mendi lasterketak. Aita izango da hilabete barru. Hala ere, asfaltoan korrika egiteko zapatilak jantziko ditu azaroan, Behobia-Donostia egiteko. Ehun urte bete ditu lasterketa historiko horrek aurtengo martxoan.

Marimurumendi maratoian ere parte hartu zuten lasterkari lasarteoriatarrek, joan den asteko igandean. 42 kilometro pasatzeko ibilbidea osatu zuten, 2.300 metroko desnibel positibo metatuarekin. Peio Fadriquek 6.44.27ko denbora egin zuen, eta 150. postua lortu. Alfredo Cidonchak 7.32.58 behar izan zuen Beasainen helmugaratzeko. 166. geratu zen. Josean Hernandez ez zen atera.

Mendi martxa prestatzen

"Hamar bat pertsona elkartu ohi gara entrenatzeko. Denok geneukan talde bat egiteko ilusioa, eta horrela jaio zen Lasarte-Oria Trail". Javi Olazagoitiaren hitzak dira. Gaur egun 50 pertsonak osatzen dute kluba; horietatik 42 daude mendian federatuta. "Herriak ikaragarri ongi hartu gaitu".

Buru-belarri ari dira lanean klubeko kideak. Lasarte-Oriako 1. Mendi Festa ospatuko dute irailaren 29an, igandea. Bi ibilbide prestatu dituzte. Luzeak 25 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positibo metatua izango ditu. Motzak, berriz, 12 km. eta 650 metroko desnibela. Kirolprobak atari digitalean eman dezakete izena parte hartu nahi dutenek. Lasarte-Oria Trailek ere zabalik ditu ateak: "Mendian ibiltzea eta atletismoa gustatzen bazaizkizu, etorri gurekin!", dio Olazagoitiak.



Lehen postuan, igerilekuan zein itsasoan

Martin ahizpak Udako Euskal Herriko Junior eta Absolutu txapelketako podiumean izan dira. Itsas zeharkaldi denboraldia ere hasi da eta Buruntzaldea IKTKo Nerea Santos Ondarroan eta Getarian garaile izan da senior mailan

Txintxarri

Martin ahizpek dominak metatzen jarraitzen dute. Udako Euskal Herriko Junior eta Absolutu txapelketan lehiatu dira asteburuan Gasteizko Mendizorrota igerilekuan, eta hainbat probetako podiumean izan dira.

Ainhoa Martin 100m. eta 200m. tximeleta probetako podiumean izan da bere markak onduz. 100m. probako B finala irabazi eta junior mailako brontzezko domina eskuratu du. Lan hobea egin du 200m. tximeleta proban. Sailkapenean denbora onena egin eta bere hautagaitza erakutsi du. Finalean, lehenengoa heldu da 2.25,02ko denbora eginda eta txapeldun izan da.

Leire Martinek, aldiz, 200m. estiloetan bere nagusitasuna erakutsi du. Kronoa 2.27,41an geratu du eta junior eta absolutuko urrezko dominak jantzi ditu. 100m. bizkar proban ere podiumean izan da absolutu mailan, eta junior mailan bigarren izan da. 100m. tximeleta probako B finalean zazpigarren sailkatu da.

Itsas zeharkaldiak

Itsasoan ere ederki hasi dute itsas zeharkaldien denboraldia Buruntzaldea IKTKo igerilariak.



Martin ahizpak podiumean izan dira Udako Euskal Herriko txapelketan. BURUNTZALDEA IKT

Ondarroan eta Getarian izan dira lehen probak eta podiumera igo dira taldeko igerilariak.

Larunbatean, uztailaren 13an, Ondarroako Itsas zeharkaldian Nerea Santosek sailkapen orokorreko eta absolutu mailako lehen postuak eskuratu zituen.

Harekin batera izan ziren ere Aitor Santos eta Unai G. Somovilla taldekideak. Somovillak absolutu mailako bederatzigarren postuan amaitu zuen; Santosek, berriz, 8.10,98ko denbora egin zuen gazteen mailan.

Igandean ere, Getariako San Anton biran bikain ibili zen Nerea Santos. Sailkapen orokorreko bigarren izan arren, absolutu mailako garaikurra lortu zuen. Eneko Elizasu eta Laura Igea ere lehen hiruen artean izan ziren haien mailetan. Elizasu bigarren izan zen absolutu mailan eta Igea hirugarren Master+F mailan.

Ez dira Getarian parte hartu duten herritar bakarrak izan. Xabier Elizegi ere bertan izan zen eta seigarren postuan amaitu zuen, Master M mailan.



Arteaga II aurrelariak Bizkaia Torneoan buruz buruko partida jokatu du. TXINTXARRI

Arteaga Bizkaia Torneoko finalerdietan lehiatuko da

Taldeka jokatzeko denboraldia da. Anboto taldean dago eta buruz buruko partida jokatu du uztailaren 28an

Txintxarri

Bizkaia Torneoaren 21ean hasiko da. Guztira 24 pilotari izango dira lehiaketa zortzigarren edizio honetan eta horien artean, Axier Arteaga, Arteaga II herritarra dago.

Bizkaia Torneoaren taldeka jokatzeko denboraldia da eta jardunaldi bakoitzean hiru partidaz gozatu ahal da: buruz buruko, lau t'erdikoa eta bikotekakoa. Kanporaketa sistemaren bitartez jokatzeko da eta hiru jardunaldi izango ditu. Final laurdenak Etxebarrin eta Barakaldon jokatu dira igande honetan, uztailaren 21ean; finalerdia Zierbanan eta Ermuan uztailaren 28an; finala, berriz, abuztuaren 20an, Bizkaia frontoian izango da.

Anboto taldea

Zozketa bidez, sei talde osatu dira: Ganekogorta, Oiz, Gorbeia,

Sollube, Koltza eta Anboto. Azken talde honetako kide da Arteaga II.a eta buruz buruko partida jokatu du. Kapitaina Olaizola II.a da eta binakako mailan jardungo da Aretxabaletarekin batera; lau t'erdiko partida, berriz, Lasoren esku egongo da.

Uztailaren 28an, Zierbanan, torneoko finalerdian lehiatuko du Arteaga II.aren taldeak. Bere arerioa Sollube eta Koltza taldeen arteko final laurdenean erabakiko da uztailaren 21ean, Etxebarrin. Garaile izanez gero, finalean izango da taldea.

Binakako partida

Lehiaketa baino lehen, ordea, binakako partida izango du Arteaga II.ak. Uztailaren 25ean Ibai Zabala atzelariarekin bikote egingo du eta Alberdi eta Aretxabaleta izango dituzte aurrez aurre Etxebarriko pilotalekuan.

Nazioarteko Krosa azaroan jokatu dute 2020 urtean

Lehiaketa beterranoari bultzada eman nahi diote antolatzaileek. Maila handiko korrikariak espero dituzte

Txintxarri

Urtarrileko azken igandean, motxila prestatu eta Hipodromora joateko ohitura errotua zegoen Lasarte-Orian. Bertan Nazioarteko Kroseko izarren balentriak ikusi eta goiz pasa

ederra egiten zen. 2020 urtean, ordea, ez da horrela izango. Kros zaletuek bederatzi hilabete gehiago itxaron beharko dituzte puntako korrikalarietako gozatzeko, azaroaren lehen lehiatuko baita proba.

Donostiako Udala, Gipuzkoako Atletismo Federazioa eta Fly Group lasterketako antolatzaileek probaren data aldatzea erabaki dute, azken urteetan probak galdu duen maila berreskuratu nahian. Nazioarteko ANOC zirkuituko lehen proba izango da eta eliteko korrikalari gehiago erakartzea espero dute.

Horrez gain, Behobia-Donostia eta Zurich Donostiako Maratoiarekin batera azaroa atletismoaren hilabete bilakatuko dute.



Data aldatuta dela medio, nazioarteko lasterkari gehiago erakarri nahi dituzte. TXINTXARRI

Udako igandeetan, Hipodromoan trostan

Aurreko jardunaldiko erorketen ostean, giro ona eta zirrara bueltatu dira Hipodromora. Donostia Turismoa saria izan da seigarren lasterketa saioko proba garrantzitsuena: 'Blue Martini' behorra izan da bizkorrena. Irail hasieran bukatuko da aurtengo sasoi

Beñat L. Garcia - Iñigo G. Sarobe

Lehenengo asteko gorabeherak alde batera utzi –jardunaldia bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek, behin eta berriro erortzen zirelako zaldia eta jockeyak–, eta normaltasuna eta giro ona itzuli ziren Hipodromora igandean. Sei sari banatu ziren udako lasterketen seigarren jardunaldian: Gipuzkoako Kirol Kazetarien Elkartea, Noticias de Gipuzkoa, Ayerdi Bitxiak, Garda Segurtasuna, Donostia Turismoa eta Biarritzeko Hipodromoa.

Donostia Turismoa izan zen igande arratsaldeko proba nagusia. Behorrek soilik parte hartu zuten eta 2.000 metroko ibilbidea egin behar izan zuten. *Celestin's* zen faboritua. Bikain hasi zen, eta bazirudien pronostikoak bete egingo zirela. Metroak egin ahala, ordea, Vaclav Janacek jockey txekiarrak gidatutako behorrek indarra galdu zuen eta *Blue Martini* nagusitu zen, azken metroetan *Fuenteesteis* atzean utzi eta gero. Borja Fayosek gidatu zuen animalia hori, eta sekulako jardunaldia egin: hiru lasterketa irabazi zituen jockey valentziarrak.

Gipuzkoako Kirol Kazetarien Elkartea Saria izan zen arratsaldeko lehenengoa. Ez zen



Jardunaldi honetan zaldiek eta jockeyek ez dute arazorik izan erorketekin. TXINTXARRI

izan lasterketa interesgarriena, baina balio izan zuen pasa den asteko mamuak uxatzeko. Eroriko asko egon ziren, eta aurreneko jardunaldiko proba gehienak ez ziren jokatu. Zaldiek normaltasun osoz zeharkatu zituzten bihurtuneak. Lasai eta sakon hartu zuten arnas antolatzaile eta ikusleek. 2.200 metroko lasterketa *Granacci*-k irabazi zuen. J. Calderonek prestatu du animalia, eta V. M. Valenzuelak gidatu. Hilabete askoren ostean, aurreneko postuan zeharkatu zuen helmuga

berriz ere. Zeresana emango du zaldi horrek udan zehar.

Bi urteko zaldi eta behor gazteek jokatu zuten Noticias de Gipuzkoa saria. 1.300 metroko lasterketa izan zen. *Guerreira* portugaldarra izan zen azkarrena. Nossa Senhora Do Vale etxeko behorra da. Igandean egin zuen debuta, eta hankaz gora jarri apustuzaleen pronostikoak.

Ayerdi Bitxiak proban egin beharreko ibilbidea zertxobait luzeagoa izan zen: 1.600 metro. C. Ze Da Bloquiera etxeko *Arpani* zaldia nagusitu zen arratsaldeko

hirugarren deman. Fayos jockeyaren jardunaldiko lehen garaipena izan zen hori.

Zaleak eserlekuetatik altxa zituen *Grace's Secret* zaldia jokaturako Garda Segurtasuna sari bikainak. Hasieran galdutako metroak jan zizkien arerio guztiei azkeneko zuzengunean. Nuria Garciak egin zituen jockey lanak.

Arratsaldeko zortziak pasatxo hasi zen jardunaldiko azken lasterketa. Fayosek zakuratu zuen Biarritzeko Hipodromoa proba, *Duendecillo* zaldiarekin.

Urrezko Kopa, hilabete barru

Abuztuaren 15ean, osteguna, jokatu da udako egutegiko lasterketa garrantzitsuena: Urrezko Kopa. *Cnicht* zaldia ezusteko galanta eman zuen iaz, eta faborito nagusiak sari preziatu hori gabe utzi. Ikusteke dago nork hartuko duen Roberto Carlos Montenegro jockeyak gidatu zuen animaliaaren lekukoa.

Lau egun lehenago, abuztuko bigarren igandean, hilak 11, berotuko dituzte motorrak Urrezko Koparako. Maria Cristina Saria izango da jardunaldi horretako proba nagusia. Beste lau lasterketa ere programatu dituzte egun horretarako.

Denboraldiak hamabost jardunaldi ditu: lau ekainean, lau uztailean, bost abuztuan eta bi irailean. Etzi hasiko den zazpigarren lasterketa eguneko sari nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. Hilabetea ixteko El Diario Vasco proba jokatu da, besteak beste. Arestian aipatutakoek gain, abuztuko beste hitzordu garrantzitsu bat Groupe Carrus izango da. Donostia saria izango da sasoioko azkena, irailaren 8an. Uda osoa dute aurretik hipika zaleek.

6. JARDUNALDIA

KIROL KAZETARIEN SARIA

1º 'Granacci' - J. Calderon	2.24,37
2º 'Ned Mackay' - V. Janacek	3 3/4 B.
3º 'Jafer' - J. Gelabert	1/4 B.
4º 'Bronx' - R. Sousa	4 3/4 B.
5º 'Mosharakka' - M. Foulon	3 1/4 B.
6º 'Galerna' - C. A. Loaiza	5 3/4 B.
7º 'Bertuchi' - B. Fayos	4 3/4 B.

NOTICIAS DE GIPUZKOA SARIA

1º 'Guerreira' - R. Sousa	1.19,52
2º 'Marrero' - B. Fayos	2 3/4 B.
3º 'Metallica Star' - M. Foulon	1 1/2 B.
4º 'El Saladillo' - R. Ramos	1 1/2 B.
5º 'Royal Dancer' - M. Foulon	1/4 B.
6º 'Manumart' - C. A. Loaiza	1 1/4 B.
7º 'Alaska' - E.J. Arguinzones	1 3/4 B.

AYERDI BITXIAK SARIA

1º 'Arpani' - B. Fayos	1.37,73
2º 'Iron Rock' - V.M. Valenzuela	3/4 B.
3º 'Just One Look' - J. Gelabert	1 1/4 B.
4º 'Amoet' - R. Ramos	1 B.
5º 'Nebli' - N. de Julian	3/4 B.
6º 'Zinza' - V. Janacek	3/4 B.
7º 'Sang Espagnola' - C. Loaiza	7 3/4 B.

GARDA SEGURTASUNA SARIA

1º 'Grace's Secret' - N. Garcia	1.37,61
2º 'Ragazzo' - B. Fayos	1/2 B.
3º 'Reporteur' - J.L. Borrego	2 B.
4º 'Costa Esmeralda' - V. Janacek	1/2 B.
5º 'Bessie Warfield' - C. Hazen	1 1/2 B.
6º 'Baroja' - C. A. Loaiza	1/4 B.
7º 'Holloko' - F. Jimenez	3 1/4 B.
8º 'Dosnueveuno' - R. Ramos	1/2 B.

DONOSTIA TURISMOA SARIA

1º 'Blue Martini' - B. Fayos	2.04,34
2º 'Fuenteesteis' - R. Sousa	Lepo 1
3º 'New Bareliere' - M. Foulon	1 3/4 L.
4º 'Cundinamarca' - J. Gelabert	3 1/4 L.
5º 'Celestin's' - V. Janacek	3/4 L.
6º 'Satin Chic' - Buesa C.	Buru 1
7º 'Alejandria' - R.N. Valle	9 B.
8º 'Dinas Powys' - V.M. Valenzuela	3/4 B.

BIARRITZKO HIPODROMOA S.

1º 'Duendecillo' - B. Fayos	1.39,44
2º 'Kirrikale' - R. Sousa	4 1/2 B.
3º 'Early Bere' - F. Alvarado	3/4 B.
4º 'Capea' - E.J. Arguinzones	1/2 B.
5º 'Bethena' - V. Janacek	1 B.
6º 'Interlaken' - V.M. Valenzuela	3 B.
7º 'Bella Baronessa' - R. Aguilera	3/4 B.
8º 'Pilin' - F. Martinez	1 3/4 B.
9º 'Tarfa' - A. Sanchez	1 1/2 B.

Ander Goenaga, Surf Egokituko Nazioarteko Txapelketan hirugarren

Ostadar Inklusioa taldeko kide Ander Goenaga surflariak hirugarren postua lortu du Surf Egokituko Nazioarteko Txapelketan, Sopelan (Bizkaia). Iñaki Belokik egin ditu kadi lanak. Finalerdietan ederki aritu zen Goenaga, eta bigarren geratu zen, finalerako txartela lortuz. Bi olatu hartu zituen eta 11,23 puntu eskuratu.



Ander Goenaga surflaria. OSTADAR INKLUSIOA

Esperientzia ahaztezina


Donosti Cup txapelketa jokatu dute Ostadar SKT klubeko sei taldek uztailean. Horietako batek, B11 kategoriakoak, Playoff B faseko finala jokatu zuen pasa den larunbatean Zubietan, Santa Monica talde estatubatuarren aurka.

2-0 aurreratu ziren urdin-beltzak lehen zatian, baina ezin izan zioten aldeari eutsi bigarrenetan eta 2-5 galdu zuten azkenean.




EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 19




Larunbata, 20




Igandea, 21




Astelehena, 22




Astearte, 23




Asteazkena, 24




Osteguna, 25




Ostirala, 26



Larunbata, 27



Igandea, 28



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zorientzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 19	DE MIGUEL
Larunbata, 20	ORUE
Igandea, 21	ORUE
Astelehena, 22	LASA
Astearte, 23	GIL
Asteazkena, 24	ACHA-ORBEA
Osteguna, 25	GANDARIAS-URIBE
Ostirala, 26	URBISTONDO
Larunbata, 27	DE MIGUEL
Igandea, 28	DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
 ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
 Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
 ERREGISTROA: 943 371 629
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
 KIROLDEGIA: 943 376 182
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
 KIUB: 943 361 605
 UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
 MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
 OSASUN ZENTROA: 943 007 960
 DYA: 943 464 622
 GURUTZE GORRIA: 943 363 953
 UDALTZAINAK: 943 362 442
 ERTZAINZTA: 943 538 840
 SOS DEIAK: 112

JAIOTAKOAK

Teo Fernandez Caballero. Uztailaren 15ean.

HILDAKOAK

Maixabel Berasategi Zabaleta. Uztailaren 13an.

OHARRAK

Man proiekturako gauzen bilketa

Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoak CercAfrica erakundeak Boli Kostako Man herririk martxan duen proiekturako hainbat gauzen bilketa egingo du uztailaren zehar.

Mutilentzat arropa eta oinetakoak, maindireak, higiene intimorako produktuak, koadernoak, boligrafoak, arkatzak, puxikak... denetarik jasoko dute Andapa kalean duten egoitzan.

Ostegunetan 10:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara eta igande arratsaldeetan 13:30etik 18:00etara egingo da bilketa.

SUDOKUA

	6		9				2	5
	9	1		3	2	7		8
7				8			1	
	7	4	8	6	3	2		
9		6		5				
	8		4		9			6
6		7	3			1		2
2							3	
	5							4

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

Hurrengo Txintxarri paperean, uztailaren 29an (astelehena) argitaratuko dugu.

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean!!



www.txintxarri.eus

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA

Banataile bila nabil, uztailearen 15etik abuztuaren 31ra lan egiteko. Uztailean beste banatailearekin batera ariko litzateke, ibilbidea eta banatu beharreko produktuak ezagutzeko. Abuztuan bakarrik egingo luke lan. Orduetgia: 08:00etatik bukatu arte (normalean eguerdirako bukatzen da lana).

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Zerbitzaria behar da Zubietako landebean lan egiteko. Telefonoa: 943 363 358.

TXINTXARRI aldizkariak banataileak behar ditu. Ostiraletan 5-6 orduko

lanaldia, kontratuarekin. txintxarri@txintxarri.eus edo 943 37 14 48.

ESKARIA

Orduka lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen edo garbiketarak lanak egiteko. Telefonoa: 722 178 177.

Pertsona bat eskaintzen da zaintzaile gisa lan egiteko orduka, gauetan... Ziurtagiria eta urtetako eskarmentua. 652 246 070.

SALEROSKETAK

EROSI

DBH3ko testu liburuak erosiko nituzke, EKI proiektukoak. Paketea, 15 euro. Telefonoa: 943 246 115.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Ingeles klaseak ematen dira, maila guztiak. Telefonoa: 693 601 222.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maitane Aldanondo eta Beñat Lizaso.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu Artebe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banataileak

Ioar Gáinza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta Haritz Esnal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Santa Ana eguna

Usadioari jarraiki, Santa Ana eguneko ospakizunak antolatuta dira Lasarte-Orian. Sainduaren omenezko meza eta luntxa izango dira goizean. Eguerdian, Erketz EDTko lagunek Karkaban dantza egingo dute. Arratsaldean, pala txapelketako finalak izango dira. Jarduera nagusia gauean izango da. 22:30ean hasita, Santa Ana Parodiaz gozatu ahalgo dute Okendora hurbiltzen diren herritarrek. Umorez eta musikaz betetako ikuskizuna izango da. Ostirala 26, Lasarte-Oriako erdialdea.



LASARTE-ORIA Parapetasonik musika jaialdia

Bost urteko etenaldiaren ostean, Parapetasonik jaialdiaren itzuli da. 5. edizio honetan estatu osoko taldeak izango dira Lasarte-Orian. Bellako, Legen Beltza, Overloud, Lampr3a eta Rodeo taldeen doinuez gozatu ahalgo da. Aurretik herri bazkaria egingo dute plazan bertan. Txartela lortzeko antolakuntzarekin harremanetan jarri behar da sare sozialen bitartez. Kalejira musikatua eta DJa ere izango dira. Larunbata 27, Andatza plaza.

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA Erakusketa

Karmelo Oñateren mendiko marrazkien erakusketa ikusgai izango da uztailearen 31era arte. Eskoriatzarrak mendian praktikatzen dituen diziplina ezberdinetan bizitako uneak irudikatzen ditu.

Jalgi Kafe antzokia.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Barsanti konpainiak *Kale Gorrian* antzerkia eskainiko du.

Edadeko bikote bat etxerik gabe geratzear dago. Berrogei urtez bizi izan dira etxe horretan, auzo horretan, eta, gaur, ezkondu ondoren erosi zuten pisua betirako uzteko unea iritsi da.

Polizia beren balkoiaren azpian dago, gunea inguratuta dute, eta epailearen agindua betetzeko prest daude. Auzokideak etxe inguruan batu dira, egoera horren lekuko izan eta, beharbada, kexatzeko. Auzokideak etxe inguruan batu dira, egoera horren lekuko izan eta, beharbada, kexatzeko. Ikusiko dugu azkenean nola amaitzen den kontua. Justizia egingo al da? Okendo plaza, 19:00etan.

DONOSTIA Bizikleta itzulia

Orain presoak bizikleta itzuliaren lehen etapa egingo da, Luhuso-Zarautz. Lasarte-Oriako Sarek herritarrei parte hartzeko deia egin die, Errekaldetik pasako da eta. Parte hartu nahi duten lasarteoriarrek hitzordua dute Okendo plazan, 16:45ean. Errekalde, 17:15ean.

LARUNBATA 20

LASARTE-ORIA Tailerra

Eskulan tailerra izango da haurren gozamenerako. Udako tailerrak ekimeneko ekintza.

Isla plaza, 11:30etik 13:30era.

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Udako tailerrak ekimena dela eta, haur guztien gozamenerako ipuin kontaria izango da. Zabaleta Auzolan elkarteak lagunduta.

Zabaletako frontoia, 12:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Filipe Court Duoren doinuez gozatu ahalgo da Kultur Kale Zikloaren bigarren saioan. Filipe Bittencourt gitarra jole eta abeslariak eta Naldo Gomes bateria joleak osatzen dute bikotea. Bossa nova Brasilgo musika funkyarekin nahasten dute.

Andapa kalea, 20:00etan.

ANDOAIN Dantza

El fin de las cosas eta *Lau eme* ikuskizuna eskainiko dituzte. Doos kolektiboko Eva Guerreroren koreografiak erlazioak eta erabakiak ditu ardatz. Bigarreanean, berriz, emakumeen borroka eta ahalduntzea dira emanaldiaren oinarria.

Goiko plaza, 19:00eta.

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Azoka

XXXV. Santa Ana artisau azoka antolatuta du Sendoki elkarteak. Eskuz egindako

produktu eta jaki ugari izango da plazan egongo diren postuetan.

Okendo plaza eta Mercero plaza, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Pintxo ibilbidea

Bakailaoa oinarri duen Santa Ana pintxoaz gozatu ahalgo da herriko sei tabernatan.

Aterpeako hainbat taberna, egun osoa.

ASTEAZKENA 24

ZUBIETA Jaiak

Santio eta San Inazio Jaiei hasiera emango die Zubietako Herri Batzordeak:

19:00etan, jaien hasiera. Txupinazoa eta buruhandiak.

Jarraian, txosna irekiera.

20:00etan, Txalagore taldearen emanaldia.

21:00etan, Herri afaria.

Ondoren, Laiotz taldearen dantzaldia.

Zubieta, 19:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 25

ZUBIETA Jaiak

Santio eguna ospatuko dute: 09:00etan, esnadeia Donostiako Txistula Bandaren eskutik.

10:30etan, meza nagusia.

Ondoren, hamaiketako eta soka-dantza.

18:00etan, gaztetxoek Joko Garbi erakustaldia, Errebote plaza.

19:00etan, herri kirolen erakustaldia. Jarraian, buruhandiak.

Zubieta, egun osoa.

USURBIL Kontzertua

MICE Miren Narbaiza bakarlariaren kontzertuaz gozatu ahalgo da, Laboaren Uztaila ekimenean.

Mikel Laboa plaza, 22:00etan.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Santa Ana eguna

Santa Ana eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta dira:

11:00etan, meza, Ama Brigitarren komentua.

Ostean, luntxa.

12:00etan, Erketz EDTko kideek dantza, Santa Ana karkaba.

18:30ean, Mindara elkarteak gurgildun aulkiekin pala erakustaldia egingo du, Loidibarren pilotalekua.

Ostean, XXXVIII. Santa Ana Pala txapelketako finalak.

21:30ean, Santa Ana parodiko aktoreen desfilea.

22:30ean, Santa Ana parodia, Okendo plaza. Azken urte honetan jazotakoaren errepaso egingo da. Lasarte-Oria, egun osoa.

ZUBIETA Jaiak

Oilasko biltzaile eguna ospatuko dute zubietako gazteek, Ane eta Olatz trikitilarien laguntzaz.

Zubieta, 06:00etatik 14:30era.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Udako tailerrak ekimena dela eta, haur guztien gozamenerako ipuin kontaria izango da.

Isla plaza, 12:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA V. Parapetasonik

Parapetasonik V. jaialdia antolatuta dute. Rock estilo guztietako taldeak izango dira oholtzan.

Andatza plaza, 18:00eta hasita.

ZUBIETA Jaiak

Zubietako jaien jardunaldi berria izango da:

12:00etan, sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote plaza.

Eguerdian, I. Bertso txapelketako sari banaketa.

15:00etan, bazkari herrikoia (kuadrilla bakoitzak berea eraman behar du).

18:00etan, Burrunba elektrotzaranga.

22:30ean, Larrian Gozo taldearekin erromeria.

Ondoren, Zaparrada taldearen kontzertua eta DJ Seymar & X2R.

Zubieta, 12:00etatik aurrera.

IGANDEA 28

ZUBIETA Jaiak

Jubilatuen eguna ospatuko dute zubietarrek:

09:00etan, meza.

14:00etan, jubilatuen bazkaria, Barazar jatetxean.

17:30ean, Patxi eta Konpainia taldearekin dantzaldia.

19:00etan, sardin eta piper jatea.

Ondoan, buruhandiak.

22:00etan, bertso saioak:

Maialen Akizu

Unai Mendizabal

Agin Laburu

Iñigo Mantzisor 'Mantxi'

Gaijartzaile: Zortzitan Bertso eskola.

Zubieta, egun osoa.



2019-07-19 OSTIRALA

txintxarri

PUBLIZITATEA



Zozketa!

AQUARIUM

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean!

DONOSTIAko AQUARIUMerako BI SARRERA zozketatuko ditugu!

Parte hartu nahi baduzu, eman izena UZTAILAREN 22a baino lehen: harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)



@TtakunKE



Bazkidetza informazioa



URTINEA



Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL

943 917 562



LORADENDA
EZKONTZA ETA
EKITALDIK
DEKORAZIOA



Animatu probatzera!

Santa Ana Pintxoa **Uztailak 21** 2019



EGUZKI taberna

TXARTEL kafetegia

YOLANDA taberna

ARKUPE taberna

BUENETXEA kafetegi-taberna

PRIMERAN taberna

